Munduko hiriak

Parkera noa, nire iritzia ematera

Londreseko biztanleek (Erresuma Batua) oso gogoko dute parkera joatea. Eta aukera handia dute, munduan berdegune gehien dituzten hirietako bat baita. Parke batzuetan, arraunean, igerian... jardun daiteke, eta diskurtsoak ere eman daitezke! Horixe egin dezakete Hyde Parkeko mintzalarien txokoan.

Londresek munduan berdegune gutxien dituzten hirietako bat da.

Bai, egia da.	Ez, ez da egia.

Nola deitzen da testuan aipatzen den parkea?

Mintzalari txokoa	Hyde Park	Erresuma Batua

Non dago Londres?

Afrikan	Erresuma Batuan	Hyde Parken

Balak, balak!

Fez hiriko (Maroko) alde zaharreko kaleetan, badirudi denborak atzera egun duela. Ez dago auto eta motorrentzako lekurik. Asto gainean soilik ibil daiteke. Kaleetan, adi egon behar da. Norbaitek: "Balak, balak!" esaten badu, paretik kendu behar da, animaliari pasatzen uzteko.

Zer garraiobide erabil daiteke hiriaren barruan?

Motorra	Astoa	Autoa

Animaliari pasatzen uzteko, zer oihukatzen dute?

Malak, malak!	Badoa!	Balak, balak!

Non dago Fez?

Marokon	Erresuma Batuan	Estatu Batuetan

Basamortuko erraldoiak

Basamortua imajinatzean, etxe orratzak ez zaizkigu burura etorzen, inondik inora. Hala ere, Dubain (Arabiar Emirerri Batuak), basamortuan egonda ere, mundu eraikin altuenetako batzuk eraiki dituzte. Burj Khalifa eraikinak, esate baterako, 163 solairu ditu!

Non dago Dubai hiria kokatuta?

Basamortuan	Mendian	Hondartzan

Zer motatako eraikinak dira Dubaikoak?

20-25 solairuko etxeak.	Etxe orratzak dira.	Hondarrez egindakoak.

Non dago Dubai?

Arabiar Emirerri Batuetan	Erresuma Batuetan